

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2011ko uztailaren 14a. VIII. urtea. 2.261. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Bilduren eta Aralarren artean adostutako programa onartu dute

Legealdiko lehen osoko bilkura egin dute Tolosako udaletxean; oposizioan dagoen EAJren ordezkariak «bazerutuak» sentitzen direla esan dute

Hamaika udal batzorde informatibo osatu dituzte; Bilduren ordezkariaren esanetan herritarrei zabalduak daude batzordeak, «parte hartzea bultzatzeko» **2**



Herenegun arratsaldean egin zuten ezohiko osoko bilkura Tolosako udaletxean. I. URKIZU

Villabonako azokan garagardo guztiek prezio bera izango dute

Irrintzi elkarteak antolatzen duen XV. Garagardo Azokak gaur irekiko ditu ateak, 18:00etan; eskaintza handitzea erabaki dute **4**

Pello Odriozolari biziarteko espetxe zigorra jarri diotela salatu dute

Lizardi elkartereko kideek Tolosako Trianguloa plazan elkarretaratzeak egiten jarraituko dutela azaldu dute, orain arte bezala, hileko lehen ostegunetan, 19:30etatik aurrera **5**

Uztaileko ostiraletan txotxongilo emanaldiak kalean

Topic Zentroaren aurrean, hileko ostiral guztietan, txotxongilo emanaldiak antolatu dituzte; bihar 'Karolino, printzesa eta dragoiaren burua' eskainiko dute 19:00etan **3**

KONTUTAN HARTU BERE ADIMENA

EREMU HANDIETARAKO DISEINATU DUGU

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508 SW BERRIA

Ertausketa zero trua bermatzen dugu.
Ertausketa libre proposatzen dugu.

Sanjoanetako parte hartzea nabarmendu dute jaien balorazioan

Sekula baino herritar gehiagok parte hartu du bai eskopetarien alardean, baita kuadrilen egunean ere

I. Urkizu

Joan den astean bildu ziren hainbat eragile, San Joan jaien inguruko balantzea egiteko. Parte hartzea nabarmendu dute, eta aurtengo jaiak balantze «oso baikorra» merezi dutela azaldu dute.

«Aurreko urteetako parte hartze erruz gainditu» dela baloratu dute; bai eskopetarien alardean, baita kuadrila egunean ere, gero eta jende gehiagok parte hartzen du. Modu honetara, eskopeta berrien beharra areagotu egin da, eta datorren urteko jaiak begira, hausnarketa egin behar dela azaldu dute, konpainietako parte-hartzaile gehienek eskopeta berriak izan ditzaten. Era berean, kuadrila egunean 1.600 lagun bildu ziren Euskal Herria plazako bazkarian, eta «egun osoan zehar giro ederra nagusi» izan zela nabarmendu dute antolatzaileek. Horrela, beraz, aurtengo Larraín dantzarik izan ez den arren, datorren urterako berreskuratzea pentsatu dute; soka muturra ere, kuadrila egunera pasatzeko ideia aztertutako beharrek iruditzen zaie, arrakastatsua izango delakoan.

Udalak festen atarian azaldu bezala, datorren urterako erlijio kutsua duten ekitaldien inguruan hausnarketa egin beharko da; auzi honetan, herritarren iritzia «ezinbestekotzat» jo du udalak.

Bordondantza eta aurraskuari dagokien, aurtengo Zumardian dia berreskuratu da, eta lorategien jaialdia dela eta, 20 dantzarik bakarrik dantzatu ahal izan dute bertan. Lekuaren inguruan ere hausnarketa egin beharko dela azaldu dute.



Batzorde informatiboak, organo kolegiatuak eta liberazioak zehaztu zituzten, besteak beste. I. URKIZU

Kontraproposamenak egin ditu oposizioak legealdiko lehen osoko bilkuran

Bozketetako emaitzen ondorioz, Bildu eta Aralarren akordioko proposamenak onartu dituzte

Itzea Urkizu

Hamaika batzorde informatibo izango dira Tolosako Udalean legealdiko honetan, astearteko aparatuko osoko bilkuran hala erabakita.

Legealdi honetako lehen osoko bilkura izan zen, eta udal batzordeen eta organo kolegiatuen inguruko zehaztapenak erabaki zituzten, besteak beste.

Udaletxeko batzar aretoan Ibai Iriarte alkatea eta 16 zinegotziak elkartu ziren, eta gai zerrendarekin hasi baino lehen, Iriartek hitz

batzuk esan zituen, bere lehen osoko bilkura zela eta. Besteak beste, «Tolosa bizi eta parte hartzailea» landu nahi dutela azaldu zuen. Arazo ekonomikoak dituzten familiek udalaren laguntza behar dutela azpimarratu zuen, krisi garaia gogora ekarri, eta normalizazio politikoaren bidean, «pauso bateratuak» emateko beharraz aritu zen. Gainera, «oposizioaren garrantzi kuantitatibo nahiz kualitatibo» ere azpimarratu zituen: «guk justu-justu irabazi baitugu».

Hamaika udal batzorde

Bilduk eta Aralarrek, sinaturiko gobernu akordioaren bidez, hamaika batzorde informatibo osatu dituzte. Batzorde kopurua murrizteak «ekonomikoki eragin positibo» izango duela uste dute, eta oposizioari ere «on egingo diola» defendatzen dute: «indar gutxiagoko alderdiek ere parte hartu ahal izango dute», azaldu zuen Lore Agirrek.

Beren aldetik, EAJko udal ordezkariak proposamen honekiko desadostasuna azaldu zuten, «bartzertuak» sentitzen direla na-

barmenduz. Egundak lehenago prentsari azaldu bezala, ekonomiarik eta bizikidetzari garrantzia handiagoa eman behar zaiela azaldu zuen Jokin Azkuek. Era berean, Jose Ignacio Asensio, PSE-EEko zinegotzia, EAJren proposamenaren alde agertu zen. Desadostasun eta kritika hauen aurrean, Bilduko udal ordezkariak «bidea egin behar» dutela erantzun zuten: «gero aldaketak egin behar badira, egingo dira. Denok dugu zer ikasia», zioen Ibai Iriartek.

Horrela beraz, Bildu eta Aralarren proposamenak irabazi zuten, aldeko 9 bozkarekin eta kontrako 8rekin. Udalbatzak onartutakoaren arabera, beraz, honakoak izango dira batzorde informatiboak: Parekidetasuna (lehendakaria Miren Urkola); Hirigintza, herri azpiegiturak eta auzoak (lehendakaria Ibai Iriarte); Giza baliabideak, udal antolakuntza, herritarren arreta eta informazio gizartea (lehendakaria Lore Agirre); Udaltzaingoa eta mugikortasuna (lehendakaria Ibai Iriarte); Ingurumena, garapen ekonomikoa, merkataritza eta turismoa

(lehendakaria Hasier de los Rios); Kultura eta festak (lehendakaria Edurne Mendia); Hizkuntza politika (lehendakaria Iñaki Irazabalbeitia); Gizarte politikak eta osasuna (lehendakaria Miren Urkola); Kontuetarako batzorde berezia eta ogasuna (lehendakaria Lore Agirre); Kirola (lehendakaria Peio Etxabe), eta azkenik, Gazteria eta migrazioa (lehendakaria Mikel Arreseigorr).

Batzorde informatibo hauei dagokien, Bilduk batzorde hauek herritarrei zabalik uzteko nahia azaldu zuen, «parte hartzea bultzatzeko».

Honen ondoren, organo kolegiatuetako udal ordezkariak izendatu zituzten. Tolosako Udalak hainbat mankomunitate, erakunde autonomo, sozietate merkantil eta antzekotan parte hartzen du: Aralarko parkea, Tolosaldea Garatzen, Tolosa Gasa, Tolosa Lotzen, Tolosa Lantzen, Iurreamendi, Apatta-erreak, Tolomendi, Zazpiburri, Ur kontsorzioa, Paper eskola, Erretengibel, Tolargi, Samanigo kontseilua, Papel institutuko kontseilua, Mankomunitatea eta Hilgetea.

Liberazioak eta ordainsariak

2011-2015 legealdirako, ebentual izaerako bi lanpostu sortu dituzte. Alkatearen aholkularia izango da bat, eta lanaldi erdiko dedikazioa izango du, urtean 26.000 euro gordineko ordainsaria jasoz. Bestetik, alkatearen idazkariak lanaldi osoko dedikazioa izango du, eta 38.511,82 euro gordineko ordainsaria izango du urtean.

Udal ordezkariak dagokien, dedikazio eskusiboko karguek izango dituzten ordainsariak ere aipatu zituzten. Alkate liberatuko 44.000 euroko ordainsaria izango du urtean, eta alkate-orde liberatuko ere kopuru bera jasoko du. Era berean, egun erdiz liberatuko den alkate-ordeak, 20.000 euroko ordain saria izango du urtean.

Guztira, beraz, hiru liberazio izango dira Tolosako Udalaren kontura. Modu honetara, udalaren gastua urtean 134.000 eurokoa izango da, eta Bilduko ordezkariak azaldu zuten, soldatetan %42 jaitsiko da udalaren gastua: «ahalik eta liberazio gutxienez proposatu ditugu, gastua jaisteko, eta lan politikoa militantea bultzatzeko, beharra baitago», azaldu zuen Lore Agirrek.

Honen harira, EAJk, bere zinegotzietako bat liberatu izatea «bidezkoena» dela defendatu zuen, «udal ordezkari bateko alde bakarrik baitago bi alderdien artean». Bere aldetik, PSE-EEko Jose Ignacio Asensio, udaleko alderdi politikoa bakoitzak gutxienez batzorde buru bat izan beharko lukeela defendatu zuen. Bozketaren ondoren, Bildu eta Aralarren proposamena onartu zen, aldeko 9 bozkarekin, aurkako 7rekin eta abstentzio batekin.

• tolosa@hitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Beti Alai
jateko

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Txotxongiloak Topic-etik kalera irtengo dira uztaileko ostiraletan

Bihar Taldekoek 'Karolino, printzesa eta dragoiaren burua' antzezlanaren eskainiko dute 19:00etan

Asier Imaz

Uztailerako kaleko lau txotxongilo emanaldi antolatatu ditu Topic zentroak. Galiot eta Taller de Marionetas de Pepe Otal taldeek, biak Batzelonakoak, eta Bihar eta Antzezkiuna euskaldunek egingo dituzte antzezpenak, Topic zentroaren atarian. Emanaldiak dohainik izango dira.

Galiot taldeak eman zion hasiera ziklo honi, *Txotxongiloen parkea* izeneko muntaiarekin. Parkea uztailaren 8an eta 9an egon zen Euskal Herria plazan.

Bigarren emanaldia Bihar taldearen eskutik etorriko da. Karolino da *Karolino, printzesa eta dragoiaren burua* ikuskizuneko protagonista. Bera ezagutzeko aukera bihar, hilaren 15ean, 19:00etan izango da. Istorio honetan protagonista txotxongilo antzerkiko heroia prototipoa da. Zalduna, gaztelu eder bat, errege atsekabetua, printzesa polita, bufoia, eta Karolinoren ahalegina baliatu nahian ibiliko den geuzurrezko heroia ikusi ahal izango dira. Bufoiaren, makilaren eta ikusleen laguntzaz, ordea, eragozpen guztiei aurre egin, eta, azkenean, printzesaekin ezkonduko da protagonista, noski, tardean ezustekorik ez baldin bada gertatzen. Eta hori jakiteko aukera bakarria bihar Topic aurrera agertzea izango da, ikuskizunaz gozatzera.

Zirkoko artistak

Hurrengo astean, ordu berean, *Vamos que nos vamos* ikusteko aukera egongo da Taller de Pepe Otalen eskutik. Haurrek zirkuarren oihartzuna aurkituko dute emanaldi horretan: munduko ikuskizunik handiena, munduko artista txikiak antzeztuta. Bertan, txotxongiloak zirkoko artista bikainak bihurtuta agertuko dira; agertokiko izar handiak, beren arte, alaitasun eta mugimenduen bizitasuna kale, plaza eta txoko guztietara zabaltzeko irrikaz ibiliko dira.

Vamos que nos vamos ikuskizun irekia da, askotarikoa; kaba-ret bat, orotariko ikusleentzat egokia. Pertsonaiei dagokienez, hantxe aurkituko ditugu Black-i, bola bakarreko malabarista; Igor Chavalint, munduko gizonik indartsuena; eta Mohame Larvi, suge-liluratzalea, Ekialde urrun eta misteriozko etorria. Baita



'Ipuin lapurra' uztailaren 29an ikusteko aukera egongo da Topic atarian. HITZA

hona ko hauek ere: Filippo, funbulista bihurtutako pailazoak; Señor Pere, geriatrikotik ihes egin, heriotzarekin dantza egingo duena; eta beste munduko pianista trebea, piztia exotikoen hezlea...

Pertsonaia ezagunak

Antzezkiuna taldeak *Ipuin lapurra* ikuskizuna aurkeztuko du uztailaren 29an, 19:00etan, Topic Zentroaren atarian. Toni La Sal izozki saltzailea da bertako protagonista. Toni La Sal herriko plazan kokatu da, izozkiak saltzen hasteko prest; baina, halako batean, telefono dei bat jasotzen du. Dirudienez, ez da benetako izozki saltzailea, eta itxura hori beste zerbaitek ezkutatuko hartu du. Herriko banketxean lapurreta egitea du benetako helburua. Asaldatuta eta izututa dago, eta lapurreta egitean, liburategiko kutxa gotorra hartu du, banketxekoa hartu ordez. Pinocho, Otsua, Txanogorritxu, Hiru Txerrikumeetan azkarrena, Katu Botaduna

↓ Egitaraua

TOPIC-EN ATARIAN

- **Bihar, hilak 15.** Topic Zentroaren atarian, Euskal Herria plazan, 19:00etatik aurrera: *Karolino, printzesa eta dragoiaren burua* ikuskizuna Bihar Talde euskaldunaren eskutik. Heroia, printzesa, heroia erakaria... egongo dira txotxongilo ikuskizun honetan. Emanaldia dohainik izango da.
- **Uztailak 22, ostirala.** Taller de Pepe Otalen eskutik *Vamos que nos vamos* txotxongilo ikuskizuna Topic Zentroaren atarian, 19:00etan. Emanaldia dohainik izango da.
- **Uztailak 29, ostirala.** Antzezkiuna taldearen eskutik *Ipuin lapurra* txotxongilo ikuskizuna Topic Zentroaren atarian, Euskal Herria plazan, 19:00etan. Emanaldi hau ere dohainik izango da.

eta Lanparako Jainua txotxongiloen istorio ero batean murgilduta agertuko dira; auskalo nola amaituko den!

Ikusleak arratoi bihurtuko ote dira, Hamelingo Txistulariaren eraginez? Toni La Salek hip-hop dantza egingo ote du? Argituko al da kasua inoiz? Hori eta askoz gehiago aurkituko ditugu ikuskizun interaktibo honetan.

Topic-ek antolatuta eta Galiot taldeak iragan astean martxan jarri zuen zikloa uztaile amaitzen denean amaituko da. Oraindik hiru ikuskizun gelditzen dira, beraz, ikusteko eta gozatzeko. Antolotzaileek herritarrei Euskal Herria plazara agertzeko deialdia egin nahi izan die, alde batetik, doako ikuskizunak izango direlako eta bestetik, adin guztietako ikusleek txotxongiloen mundu magikoa gertutik ezagutzen jarraitzeko aukera izango dutelako, nahiz eta udan egon. Emanaldi guztiak 19:00etan hasiko dira hila-bete honetako ostiraletan.

→ Laburrak

Oargiko mendi irteeran izena emateko aukera

MENDIA › Gaur amaituko da Oargik antolatuta duen mendi irteeran izena emateko epea. Uztailaren 17an, igandean, Aiako Harrietara joango dira autobusez, eta ibilbidea Aritxulegitik hasiko da. Amaiera berriz Ola sagardotegian izango da. Guztira lau edo bost orduko ibilbidea izango dela azaldu dute Oargitik. Izena emateko info@oargi.org edo 688 698 642-ra deitu behar da.

'Cars 2' pelikula asteburuan estreinatuko dute

ZINEA › Tolosako Leidor aretoan estreinaldi berezia izango da larunbatean, *Cars 2* pelikula botako baitute 17:00etan eta 19:30ean. Ondoren, igandean eta astelehenean ere eskainiko dute pelikula. Igandean ordu berean eta astelehenean 17:00etan. Egun hau ikusleen eguna izango da gainera.

Kantujira prestatzeko entsegua gaur

KULTURA › Uztaileko azken larunbateko kantujira prestatzeko asmoarekin, gaur eta hilaren 28an izango dira entsegua, 20:00etan. Tolosako Kultur Etxearen Areto Nagusian. Ekimenaren sustatzaileek herritarrek gonbidatu dituzte.

Kantujira prestatzeko entsegua gaur

VILLABONA › Billabona FKE-k irekia du 2011-2012 denboraldirako futbol eskolaren izen ematea 2000, 2001, 2002 eta 2003 urteetan jaiotako neska-mutilentzat. Izen-emate epea 3 egunez irekia egon da eta gaur amaitzen da; udaletxeko liburategiko goiko balio anitzeko gelan egin behar da 18:30etik 20:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero billabonafke@yahoo.es-ra idatzi edo 676 31 79 45 telefono zenbakira deitu.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Uztaile, abuztua eta irailen etxebizitza alokagai dago Jacan eta Peñiscolan. Interesa dutenek deitu 635 73 70 43 telefono zenbakira.

LANA

■ **Harakina.** Asteasuko despieze almazan batek harakina behar du. Esperientzia izateko beharrez-

koa da. Deitu 943 69 33 22 telefono zenbakira 08:00etatik 12:00etara.

■ **Zaintza eta etxeko lanak.** Leitzaldeko emakume euskaldun batek haur nahiz helduak zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako lanetarako bere burua eskaintzen du. Interesatuek deitu 948 51 03 48 telefono zenbakira.

ALEGIA
943 653 097

ISKIÑA
edaritegia
San Juan kalea 59

ETXEBERRIA
edaritegia
San Juan kalea 51

Garagardo zaleen festa dela eta, apar artean igaroko dituzte lau egun

Gaur 18:00etan zabalduko ditu ateak eta igandea bitarte izango da Irrintzi Elkarteak antolatzen duen azoka

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Garagardo zaleen festak gaur irekiko ditu ateak. 18:00etan eman go diote hasiera Gipuzkoako Garagardo Azokarik zaharrenetakoari. Gaur hasi eta igandea bitarte Villabonako 15. Garagardo Azoka izango da, Irrintzi Elkartearen eskutik.

Urteroko bideari jarraituz, lau egunez izango ditu ateak zabalik. Gaur eta igandean, 18:00etatik 01:00etara izango da zabalik, eta ostiralean eta larunbatean, 18:00etatik 02:30ak arte. Txermin-go Ikastolako jolaslekuan prestatu dute 900 lagun elkartzeko moduko tokia. 100 lagun inguru ibiliko dira lanean.

Garagardo aukera zabalda eskaintzen dute, eta aurtin bi berri gehitu dituzte. Orain artean garagardoek prezio ezberdinak izaten



EGARRI DENAK 18:00etatik aurrera izango du eztarria bustitzeko aukera. MAIZ

zitzen. Aurtin, garagardo mota guztiengatik 3,50 euro ordaindu beharko da.

Jatekoen aldetik ere, Irrintzi Elkarteak aukera handia eskaintzen du. Saltxitxak, entsalada alemaniarak, patatak, 2 eurotan; haragi pastela eta langostinoengatik 2,5 euro ordaindu beharko

dira; gulak eta muskuiluak 3 eurotan eta ukondoa 8 euro ordaindu beharko da. Postrea, 2,5 eurotan jarri dute.

Billabonarrekin eta inguruko herritakoekin ere, urteroko zita izango dute. Festak gerturatzeko ari direnez, jai giroan murgiltzeko aukera bikaina izango da.

Usakume tiraketako XXXIII. Behar-Zana Sari Nagusia izango da

Arratzaingo zelaian izango da larunbatean goizez eta arratsaldez; lehen hamarrek sariak izango dituzte

E. Maiz Amasa-Villabona

Larunbatean, hilaren 16ean, Arratzaingo Izarre zelaian Usakume tiraketako Behar-Zana Sari Nagusia jokatu da. Aurtengoa XXXIII.a da, eta goizean, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara igoango dute lehiaketa.

Inskripzioa 28 euro ordaindu beharko da, eta usakumeak aparte izango dira. Hemezortzi metroko distantziatik egingo beharko dute tiro eta sei tiratzailetako serieak egingo dituzte.

Sari ugari dituzte parte hartzaileen artean banatzeko: lehenentzat, 500 euro eta txapela izango dira. Bigarren sailkatuak 350 euro, hirugarrenak, 200 euro, laugarrenak 140 euro, bosgarrenak eta seigarrenak 90 euro, zazpigarrenak 80 euro, zortzigarrenak, 70 euro eta bederatzigarrenak eta hamargarrenak, 40 euro jasoko dituzte.

Gainera, lehen hamar sailkatuek, oroigarria edo urdaiazpikoa aukeratu beharko dute. Hamai-kagarrenetik, hogeita hamarrena ere, oroigarria edo urdaiazpikoa aukeratu izango dute, eta Elkarteak lehen bi bazkideek, trofeoak jasoko dute.

Gipuzkoako Ehiza Federazioko epaileak izango dira, eta Federazioko araudia jarraituko dute. Tiro zuzendaria, Jose Mari Lizaso izango da.

Amasa-Villabona >



IP BAILARATIK BARRENA

Asteburuan, Aizkardi mendi taldeko kideek, Canfranc, Collarada eta Villanuatik egin zuten ibilbidea. Tartean Ip-eko bailara gurutzatu zuten. Hogei kilometro inguruko ibilbidea Villanuan bukatu zuten. Hogeita zazpi mendizalek izan ziren irteeran eta eguraldi bikaina lagun, paisaia ederrez gozatzeko aukera izan zuten. HITZA

↓ Villabonako 15. Garagardo azoka

AZOKA

- **Non.** Txermin ikastolako jolaslekuan prestatzen dute 900 lagunentzako tokia.
- **Noiz.** Gaurtik igandera bitartean egongo da zabalik.
- **Ordutegia.** Gaur 18:00etan irekiko dute 01:00ak bitarte. Ostiralean eta larunbatean 18:00etatik 02:30era eta igandean 18:00etatik 01:00etara.
- **Antolatzailea.** Irrintzi Elkarteak da.

GARAGARDOAK

- Guinness.
- Mort Subite.

■ Judas.

- San Miguel Especial, 1516, Selecta, Clara eta 0,0%.
- Desperados.
- Grimbergen Dubbel eta Cu-vee de L'Ermitage.
- Murphy's Irish Red.
- Calsberg.
- Kronenbourg 1664.
- Affligem Blond, Doubbel eta Tripel.
- Paulaner Salvator, horia eta gariarekin egindakoa.
- Foster's.
- New Castle.
- Tetley's.
- Carling.
- Warsteiner.
- Konig Ludwig Weissbier.

JATEKOAK

- Saltxitxak.
- Haragi pastela.
- Gulak. (Baratzuri erara, ganbekin)
- Entsalada alemaniarra.
- Patatak Navarrito erara.
- Ukondoa.
- Olagarroa.
- Langostinoak baratzuri erara.
- Muskuiluak tomatearekin.

POSTREAK

- Idiazabalgo gazta tarta.
- Sagardo tarta.
- Alustizako gazta.

VILLABONAKO BEILATOKI ETA SULABE BERRIA

Uztailak 16 eta 17an
ate-irekiko jardunaldiak

Gerturatu...

FLINERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

24 H..

943 694 873

Larrea, Portugazoa 34 - 1



Hilabeteko lehen ostegunean Trianguloan elkartzten dira Pello Odriozolak bizi duen egoera salatzeko. A. IMAZ

Odriozolari «praktikan» biziarteko zigorra jarri diotela salatuz segituko dute

Lizardi elkarteko kideek elkarretaratzea antolatzen dute hileko lehen ostegunean, 19:30ean, Trianguloan

Asier Imaz

Euskal preso politikoen aldeko hamaika ekimen ikusi izan ditugu gure eskualdean, eta maiztasunez, gainera. Bi aipatzekotan, azken ostirala eta hileko lehen osteguna azpimarratu behar dira. Lehena, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak bultzatzen du, hainbat eragileren laguntzaz eta parte hartzeaz. Bigarrena, Tolosako Lizardi elkartetik garatutako ideia da.

Pello Odriozola tolosarra 1988. urtean atxilotu zuten. Egun, ondorioz, 23 urte daramatza espetxean Lizardi elkarteko kideak. Estatu espainiarreko espetxe ugari ezagutu ditu urte guzti hauetan zehar, eta gaur Zarago-

zan daukate preso. Bere elkarteko kideek ez dute ahazten, eta hileko lehen ostegunean kalera irteten dira hainbat herritarren babesarekin. Trianguloa plazan 19:30ean hasten den elkarretaratzean parte hartzeko deialdia, tolosar guztiei zabaldua dago. Pello Odriozolak bizi duen egoera salatzeko modukoa delako Lizardiko en ustez: «Zigorra oso-osorik 2008ko uztailaren 2an bete zuten, hortaz, dagoeneko 3 urtez luzatu diote zigorra bidegabeki Pellori».

Orain Zaragozan dutela aipatzen dute elkarteko kideak, «bahi-tuta». Egoera «eskandalagarria» dela diote, «mendeku hutsa». Pello Odriozolari 2008an Parot doktrina ezarri zioten espetxean mantendu ahal izateko. Orain irteera eguna data zehatzik gabe dago, «ez dakigu noiz irtengo den, euren erabaki horren arabera, egun hori oso urrun dago, 40 urte espetxean? Ez dakigu».

Euren Lizardiko kideari biziarteko zigorra ezarri diotela salatzen dute: «Ez baldin badute hitz

horrekin esan nahi ere, praktikan, biziarteko kartzela zigorra ezartzen dute, eta hori ezinezkoa da. Zuzenbide estatu batean, berariaiek jarritako zigorra bete, eta behin hori beteta dagoenean, kalera irten beharra dauka presoak. Birgizarteratzea eta abarrez mintzo dira gero, baina hau mendeku hutsa besterik ez da».

Euskal Herrian bizi duen garai honetan, urratsak eman beharra ere ikusten dute Lizardikoek: «Denon artean alde guztietako minak sendatu behar dira, baina alde guztietakoak. Presoak etxeratzea ezinbesteko urratsa eta baldintza da. Zigorak beteta dituztenak, gaixorik daudenak... etxean egon beharko lukete jadanik. Denon artean egin behar dugu bakea, eta horretarako arierioen artean hitz egin beharra dago arazoak konpontzeko».

Azkenik, herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte ostegunetako elkarretaratzerara. Eurak, bertan egongo dira Pello Odriozola aske ikusi arte.



Igarondo urpekoak taldeak maila bikaina erakutsi du Espainiakoan. HITZA

Igarondo urpekoak taldeak bederatzi domina lortu ditu

Espainiako hegats igeriketako txapelketak jokatu dira; eskualdetik 11 igerilari joan dira

Gregorio Mancisidor

Igarondo urpekoak taldeak bederatzi domina lortu ditu Valladoliden ospatutako Espainiako txapelketetan. Río Esgueva igerilekuan ospatu dira hegats igeriketako txapelketak, eta Tolosako taldea hamaika igerilarirekin joan zen Valladolidera. Bertan, emaitza ezin hobekak lortu zituzten.

100 metro eskafandrako proba beti izan da taldearen gustukoa, eta berriz ere, horrela izan da txapelketa honetan: Mara Varela urrea lortu zuen, Amaia Arregik zilarra eta Patxi Mongek Zilarra. Horrez gain, Amaia Arregik urrea lortu zuen 800 metro eskafandran, izugarriko proba egin ostean; 400 eskafandran zilarra eskuratu zuen. Mara Varela ere urreari zilarra gehitu zion 100 metro ur gaineakoan, eta brontzea 50 apnean.

Igarondoko neskek erreleboe-

tan maila bikaina erakutsi zuten, bai 4x200ean eta baita 4x100ean ere, brontzezko domina bana lortuz. Errelebo luzean bizentesimategatik ez zuten zilarrezko domina lortu. 4x200ean Leire Ramirez, Nere Karrera, Amaia Arregi eta Mara Varela hartu zuten parte, eta 4x100ekoan bi aldaketa izan ziren, horrela Ainhoa Tolosak eta Inge Zubeldiak hartu zuten parte Mara Varela eta Amaia Arregiren lekuan.

Mutilek ere 4x100 erreleboetan oso maila polita erakutsi zuten, taldearen errekorra hautsiz. Amaieran asko landutako 5. postua lortu zuten. Taldea ondorengo igerilariek osatu zuten: Jokin Zubizarretak, Mikel Estebanek, Gregorio Mancisidorrek eta Patxi Mongek.

Gazteen artean Asier Aranburuk bere marka onenak egin zituen, eta distantzi handietarako urratsa eman zuen.

Beti bezala, talde lana indartsu lantzen saiatzen da Igarondo urpekoak taldea, eta horretarako ezinbestekoa da Jon Espina entrenatzailearen eta Maitane Tolosa eta Oihana Oruño ordezkarien lana, denon artean egin baitute txapelketa bikain hau.



saridunak

HITZAK harpidedunentzat **afari txartelak** ditu

Villabonan uztailaren 14, 15, 16 eta 17an ospatuko den

15. Garagardo Azokarako,

bi pertsonentzako **4 afari** zozketatuko ditugu.

Osteguneko afarirako sariduna: **Gregorio Begiristain (Tolosa)**

Afariko txartelak leihatilan bertan izango dituzue



sarrerak



Alegiako abesbatzak karmenetan ariko dira

Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek bihar eskainiko dute emanaldia, 20:00etan, herriko elizan

Nerea Pikabea Alegia

Alegiako Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek Karmen Jaietako emanaldia eskainiko dute bihar, hilak 15, herriko Juan Bataiatzailea Deunaren elizan. 20:00etatik aurrera kontzertu koloretua eskainiko dute. Euskal doinuak eta beste herrialde batzuetako abestiak uztartuko dituzte.

Lehendabizi, *Salve Regina* abestuko dute 19:45ean elizan. Pedro Joxe Iguain herriarrak 1916an egin zuen ama birjinari eskainitako otoitzaren doinua.

Ondoren, Karmeneko kontzertuari ekingo zaio. Taldeko gazteenak hasiko dira kantatzen Idoia Iraolaren zuzendaritzapean. Hasteko, Eva Ugaldaren *Ku ku ue* abestuko dute, lehoi baten istorioa kontatzen duen abestia. Ondoren, Leonard Cohen abeslari kanadarraren *Hallelujah* eskainiko dute. Lehendabiziko bi abestietan Aitor Iraola herriarra ariko da pianoan. Hego Afrikako

zulu etniaren doinu herriko batekin amaituko dute euren lana: *Nesiponono*. Johann Van der Sandt konpositoreak abesbatzentzat eginiko moldaketa da.

Ondoren, helduen koruak abestuko du Garbiñe Orbegozok gidatuta. Guztira zortzi kantu eskainiko dituzte. XVI. mendeko kantu batekin hasiko dute. Enriquez de Valderrabano musikagile espainiarrak idatzitako *Cantio* abestia da eta moldaketa David Azurza tolosarrarena da. Segidan, *Matona mia cara* kantatuko dute, Orlando di Lasso musikagile belgikarrena. Hori ere XVI. mendeko da eta soldadu alemaniar baten istorioa kontatzen dute, Orlando di Lasso musikagile italiar kantatu nahi dio leihotik begira daukan bere maiteari, baina egiterakoan frantseza eta alemana ere nahasten ditu. Ondoren, estiloz aldatu eta habanera batekin segituko dute, *El abanico*. Euskal doinu ezagun baten notak ere entzungo dira: *Maitiak galdegin zautan*; kontzertuan abestuko dutena Azurza tolosarrak moldatutakoa da. Javi Busto hondarribiarraren *Sagastipean* obra konplexua abestuko dute, disonantziak betea; korua zortzi zatitan banatzen da une baten eta organo baten soinua irudikatzen du momentu batzuetan.

Inazio Mujikarenak dira hitzak. Kontzertuko abesti berrizailenetakoa Mikel Urdangarinen *Usaiak* izango da. Olatz Zubeldia abesbatzako sopranoak egingo du bakarlariarena. Zubeldia abesbatzako Kantu Txapelketaren finalean parte hartu zuen iazko azaroan. Pablo Sorozabalena *Nahi zuya yin* amodiozko abestia eskainiko dute; eta euren lanarekin amaitzeko, Aruba irlako abesti herriko bat kantatuko dute, koreografia eta guzti: *Balia di Sehu*. Kontzertu amaieran *Muxu bat* abestuko dute bi koruek elkarrekin, bi herriarrek musika tresnekin lagunduta: Mariaje Rekondok pianoan eta Andoni Agirrezabalak gitarrarekin. Kantu horren musika eta hitzak Tolosako Juantxo Zeberioek eta Karios Linazasorok egin zituzten.

Guridiren 'Flos Carmeli'

Urtero egin ohi duen bezala, Karmen eguneko meza nagusian kantatuko du herriko abesbatzak. Hainbat abesti kantatuz parte hartuko du koruak meza 11:15etan. Besteak beste, On Lukas Guridi Alegian egondako apaizak bereziki Karmen Egunerako konposatutako *Flos Carmeli* mezako *Gloria* abestuko dute. Alegiako herriari eskaini zion meza hori Don Lukasek.



Karmen eguneko meza nagusian On Lukas Guridi apaizak bereziki konposatutako *Gloria* abestuko dute. HITZA

Leitza ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte

Plazaolakoek 2011ko uda oihanaren bihotzean programaren baitan bisita gidatuak antolatu dituzte

M. Ugartemendia Leitza

Plazaolako Patzuergo Turistikoko 2011ko uda oihanaren bihotzean programa prestatu du uda honetarako. Horretarako, bisita gidatu batekin ezagutu daitezkeen lekuen zerrenda bat egin du. Bide

batez, ekimen honekin jendeak Nafarroako iparraldea ezagutzeko espero dute.

Aurreko urteetan ekimenak izan duen arrakasta ikusita, aurtengo jendeak bistatu ahal izateko 10 eskaintza prestatu dituzte; horietako hiru Leitza. Bisita hauek egiteko, lehenago telefonoz erreserba egin behar da. Gai honen inguruko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, edo erreserba egiteko telefonoak eskuratzeko www.plazaola.org helbidean sartu eta beharrezko guztia han aurki daiteke.

↓ 2011ko uda oihanaren bihotzean

BISITA GIDATUAK

■ **Plazaolako Natur Bidea eta Leitza herrigunea.** Antzina-ko geltokitik hasita Natur Bidean zehar paseoa, Iturrizarratik jaitsiz antzinako garbigitik pasaz, eta udaletxeraino. Herriko plazan, Leitza joko eta kirolaren leku nagusia. Bisitak hilaren 23an eta 30ean, eta abuztuaren 6an eta 20an.

■ **Saralegiren Arro baserria.** Kristina Saralegiren Leitza Arro baserrian hazten den aziendari bisita: behorrak, astoak, antzarrak, ahateak,

txerriak, ardiak... Ondoren, talo-gintza tailerra eta talo hauen dastatzea. Bisita hau egunero egin daiteke, aldeaz aurretik deituta.

■ **Peru-Harri, harriaren parke eta museoa.** Perurena harri-jasotzaileak diseinatutako Peru-harri museora bisita. Ondoren, herri-kirolen historia eta Iñakiren eta Inaxioren markak ezagutzeko bisita baserriera. Bisita libreak larunbat, igande eta jaiegunetan egin daitezke, 10:30-14:30 bitarte. Bisita gidatua egiteko aldeaz aurretik deituta.

→ Laburrak

Ez ohiko udal batzarra egingo da, gaur, Leaburun

LEABURU › Udalak ez ohiko udal batzarra egingo duela jakinarazi du. Batzarra gaur izango da, 20:00etan, Leaburuko udaletxean bertan.

Sukuntza da Txinga Txapelketako irabazlea

LEITZA › Migel Angel Sukuntzak irabazi zuen Iruñean jokaturako Nafarroako Txinga Txapelketa. Sukuntzak 17 plaza egin zituen, eta bere aurkaria zen, Baraibar leitzarrak baino 10 plaza gehiago burutu zituen. Gauzak honek, erakustaldi izugarria eginda Sukuntza izan zen garaile.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Alkateen elkarrizketak →

Joxe Erramun Goikoetxea ◉ Bidegoiango alkatea

«Jendeak ikusten zuen aldaketaren premia zegoela»

I. Garcia Bidegoian

Lehenengo aldiz hartuko du kargu publiko bat Joxe Erramun Goikoetxea (Tolosa, 1977), Bidegoiango alkate berriak. Bildu koalizioetik zerrendaburu izan zen hauteskundeetan.

Nolatan aurkeztu zinen hauteskundeetara?

Herria pixka bat ezagutzeko batzarretara joaten nintzen, eta galdetu ere bai. Ez genuen informazio asko jasotzen, azalkeoa. Eta beti pentsatzen nuen ea gauzak horrela izango ziren. Orain daukagu aukera mamia ezagutzeko. Hauteskundeak baino bi hilabete lehenago hasi ginen hitz egiten zerrenda osatzeko. Orain arte independente bezala aurkeztu izan dira Bidegoianen. Nik ez nuen ikusten independente joatea. Azkenean Bildu bezala aurkeztea pentsatu zen. Ez zen inor aurkez-

ten zerrendaburu. Pentsatu nuen esperientzia berri bat izango zela eta ni neu aurkeztu nintzen. Programa egin genuen eta etxetz zabaldtu genuen. Udaletxeak herriera zabaldtu behar zuela argi genuen, herritarrek eskubidea dutela jakiteko zer gertatzen den.

Emaitzei buruz zer irakurketa egiten duzu?

Ezusteko handia hartu genuen. Alde dezentea atera genion beste zerrendari. Besteek 117 bozka jaso zituzten eta guk 185 bozka. 68 bozken alde atera genuen, eta poz handia hartu genuen, kontuan hartu behar baitzen zerotik hasten ginela. Jendeak ikusten zuen aldaketaren premia zegoela herri honetan, gehienbat gardentasuna behar zela. Gertatzen diren gauzen berri herriari emateko nahia zegoen.

Zer balantze egiten duzu aurreko legegialdiari buruz?

Herriari ez zaiola gardentasun hori erakutsi orain arte bota dugu guk faltan. Orain arte egon den alkateak berak hartutako erabakiekin egon da, herritarrei galdetu gabe. Herritarrek hori faltan bota dute eta hortik ere etorri dira emaitzak hauteskundeetan.

Legealdi horretan alkate aldaketa izan zen.

Zentsura mozioa aurkeztu zioten beste zinegotziek. Udaletxeak zerraman bidearekin tunel batera iristen ari zen. Zentsura mozio bat egin zen eta bigarrena zihona alkate jarri zen. Hala ere, alkate berriarekin herriari gauzak azaltzea falta izan da.

Legealdi honetarako zein egitasmo dituzue?

Jendeari batzordeetan parte hartzea gonbidatu, beraien proposamenak entzun eta erabakiak bertan hartzeko. Udalak herrira zabaldtu behar du.



I. GARCIA

Proiektuei dagokionez, zer asmo duzue?

Badago bat aurreko legealdian martxan jarri zena eta orain guk bultzatuko duguna: gas hornidura. Gasarentzako bi biltegi daude, baina txiki samar gelditu dira. Bat handia jarriko da Goiatzko hilerriaren inguruan. Faseka joan beharko dugu, eta bigarren faseka guk emango genuke aurrera. Diru laguntza batzuk ere badau-

de eta horiek aprobetxatu behar dira ahal den gehien. Bestalde, frontoia zaharkitua dago eta ikusi behar dugu ea zer aukera ditugun berritzeko. Proiektuak asko daude, baina egoera ere halakoa da.

Nola dago plan orokorraren egoera?

Udala hartu genuenetik geldituta dago. Lehenengo lana hori izan da. Plana aztertu nahi dugu bere osotasunean.

Gregorio Iraola ◉ Albizturko alkatea

«Proiektu bat dugu oso garbia, hau da, herrigintza proiektua»

I. Garcia Albiztur

Gregorio Iraola (Albiztur, 1965) da Albizturko alkatea. Lehenengo aldiz hartu du kargu publiko bat. Aralar alderditik aurkeztu da, independente moduan.

Albizturren herri zerrendak aurkeztu izan dira. Zuek Aralar bezala aurkeztuzarete.

Gai honetan bi puntu daude argitu behar direnak. Alde batetik, herri plataforma erregistratu ahal izateko epe bat dagoela. Epe horretatik aurrera, alderdi politikoa behar du izan. Zerrenda osatu ezin egon ginen, eta azkeneko unean osatu genuen. Horregatik alderdi baten beharra izan genuen. Hiru aukera genituen: Bildu, Aralar eta EAJ; eta erdikoa aukeratu genuen, besteak beste, zenbait alderdirekin joateko adostasunik ez

zegoelako, eta bere aldetik saiatu zirelako zerrenda bat osatzen. Bestalde, independente bezala aurkeztu gara, inor ez da alderdi horretako afiliatua. Independentententitzen gara alde guztietatik, gure nortasuna daukagulako.

Zer irakurketa egiten duzu lortutako emaitzei buruz?

Espero genuen egoera bat eman da, eta espero baino bozka gehiago jaso genituen. Beraz, irakurketa positiboa egiten dugu. Boto zurriak ere izan dira, oso nukleo zehatz batetik emandakoak, gure ustez. Beraiek azaldu beharko lukete zergatik eman dituzten bozka horiek.

Aurreko legealdiaren zer balantze egiten duzue?

Talde osoak oso garbi dugu gure lana karguak hartu genituenean hasi zela. Ekainaren 11ren aurre-



I. GARCIA

tik gertatu zenaren inguruan, ikuspegi bat izan dezakegu, baina ez dugu baloraziorik egingo. Ez zaigu zuzena iruditzen, ez delako hemen lana politikoki egiten. Hemen herri mailan egiten da lana, eta, beraz, ez zaigu zilegi iruditzen baloraziorik egitea.

Zer egitasmo dituzue legealdi honetarako?

Aurrera begira, gure asmoa, alde batetik, udal politika aldatzea da. Bestalde, alkatearen boterea eta jabeagoa deuseztatzea, neurri batean. Horrez gain, udala erakunde itxi bat izan beharrean, herriko eraikin bat bihurtzea, irekia herritarrentzat. Eta, posible den hei-

nean proiektuak egitea, baina beti herritarren parte hartzea bilatuz, ahal den guztia, jendeak ematen duen neurrian.

Proiektu zehatzen bat baduzue?

Proiektu bat badugu oso garbia, hau da, herrigintza proiektua. Herritarren parte hartzea, herritarren inplikazioa, hori da dugun proiektua. Eta, bestalde, hormigoizko proiekturik ez dugu aurreikusten.

Zer egoeratan dago plan orokorra?

Egun Eusko Jaurlaritzan dago izan orokorra. Berrikuspen bat izango du, iruditzen zaigulako gehiago landu behar dela herritarrekin, ezin delako aurreikusten

den modelo bat inposatu. Eta ez dituelako, hasiera batean, Albizturko beharrak inondik inora betetzen. Gure ideia da plana berrikustea, bere osotasunean, eta herritarren beharrak betetzea. Aurreikusten diren zenbait gauza eztabaida zabalago batetik jorratu nahi ditugu, eta behar bada, kontsulta bidez planteatu. Adibidez, autoen zirkulazioa edo etxeak egiteko modua.

Apaitzearen proiektuaren egoera nola dago?

Aurreproiektu bat dago eta horren erdiaren diru laguntza onartuta dago. Falta da beste diru laguntzaren erdia lantzea. Onartutakoa Eusko Jaurlaritzaren Erein programatik dator, eta beste erdia Foru Aldunditik landu beharra dugu. Datorren urtera begira hasiko ginatke eskatzen. Aurreproiektua planteatuta dagoen bezala, erabilera aldaketa bat planteatzen dugu. Gure ikuspegiz aldaketa nahiko justifikatua, eta gizarte laguntzailearen aldetik babestua. Nahi dugu ere batzorde bat planteatzeko herriko hainbat eragilerek irabakiak hartzeko, udalak hartu beharrean.

Festak antolatzen ariko zarete.

Filosofia pixka bat aldatu da festaren antolakuntzan: udalak antolatuta eta gazteek lana egin beharrean, gazteek festa antolatuta eta herriak laguntzea. Gazteak ari dira antolaketa egiten, eta bidarantuta dute egitaraua.



≈ 22°
≈ 13°

GOIZA	OSKARI
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	25°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

■ **Berastegi.** Salontzo jaietako abuztuaren 5eko afarirako txartelak erosi daitezke jada, Urepele elkartearen, Zelai tabernaren eta Basurde elkartearen. Helduek 17 euro ordaindu beharko dute, eta 12 urteik beherakoek 9 euro.

JAIK

■ **Alegia.** Karmen Jaiak gaur: 09:00etan jubilatuek antolatutako mendi martxa; 10:00etatik 14:00etara haur parkea eskolako atarian; 13:00etan apar festa; 11:00etan jubilatuentzat haiketako; 14:00etan umeen herri bazkaria; 16:00etan umeentzat arrantzaleen jokoak; 18:30ean kartel lehiaketan parte hartu duten marrazkien erakusketa udaltzeko arkupetan; ordu berean erraldoiak eta buruhandiak; 19:00etan txupinazoa; 19:30ean trikiti emanaldia plazan; 21:00etan zahagi ardoa plazan; 22:30ean bertsolariak Kultur Etxean; eta 23:30ean Kresala taldearen dantzaldia plazan. Festa alternatiboen barruan: 21:00etan zahagi ardoa; eta 22:30ean Joseba Irazoki eta Pettiren kontzertua.

ERAKUSKETAK

■ **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketa Ekomuseoan, iraila arte.
■ **Tolosa.** Binefarreko titiriteroen erakusketa Topic Txotxongi-oen Nazioarteko Zentroan urriaren 2a bitarte. Irailak 30 bitarte udako ordutegian ikusi ahal izango da erakusketa, hau da, lanegunetan 11:00etatik 14:00etara, 16:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan 11:00etan 14:00etara, eta 16:00etatik 21:00etara.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, 1. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurrak**

LEIHO ISOLATZAILAK



- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

Jai zoriontsuak pasal!

943 69 84 39

Larraitz ileapaindegiaren partez: **Jai zoriontsuak!**



Larraitz auzoa, 2 behea • ALEGIA • Tel.: 943 65 55 33
Eskerrak eman nahi dizkizuet urte hauetako babesagatik

15. GARAGARDO AZOKA
UZTAILAREN 14TIK - 17RA
Ordutegia: 18.00etatik 1.00era
VILLABONA

San Miguel

Publierreportajea



Ehunmiliak probako partehartzaileak laz, Beasaingo Irteeran.

Asteburu paregabea Goierri ezagutzeko


Asteburu honetan Goierri bisitatzeko eta gozatzeko ekitaldi ugari izango dira. Kirolzalea denak, Ehunmiliak ultratrail lasterketa ikusteko aukera izango du, bai irteera eta bai helmuga Beasainen izango duena (ehunmilak.com).

Bai Ehunmiliak eta baita Goierriko Bi Handiak proba ere, Aizkorri-Aratz eta Aralar parke naturaletatik pasako dira.

Bestalde, Segurara gerturazten denak, herria bera ezagutze-

az gain, Erdi Aroko II. Aste Kulturaleko ekintzetan parte hartzeko aukera izango du. Tartean, *Jantzien bidez*, *Euskal Herria ezagutu* erakusketa bisitatu ahal izango da.

Musikak ere izango du tokia astebukaera honetan Goierriin, Ataunen zehazki. Organo Barrokoaren Nazioarteko V. Jaialdiaren azken kontzertua izango da San Martin elizan, larunbatean, 20:00etan.



Segurako Ardiarra etxean dagoen Erdi Aroko interpretazio zentroa.

goierri
bertza da

www.goierriturismo.com